

# URRIA OCTUBRE

2013



**Alhóndiga**  
Bilbao

Kultura Bizi  
Den Tokia  
Donde Vive  
la Cultura

[www.alhondigabilbao.com](http://www.alhondigabilbao.com)

# ÀURKIBIDEA

## INDICE

|  |   |
|--|---|
| HILEKO LANKIDETZA / LA COLABORACIÓN DEL MES                              |   |
| XABIER ARAKISTAIN. 'Guerrilla Girls. 1985-2013' erakusketaren komisarioa |   |
| Comisario de la exposición 'Gerrilla Girls. 1985-2013'                   | 4 |

## KULTUR PROGRAMAZIOA PROGRAMACIÓN CULTURAL

### ERAKUSKETA EXPOSICIÓN

|                              |   |
|------------------------------|---|
| 'GUERRILLA GIRLS. 1985-2013' | 7 |
|------------------------------|---|

### ELKARRIZKETA ENTREVISTA

|  |    |
|--|----|
| LOURDES MÉNDEZ. 'IKUSPEGI FEMINISTAK PRAKTIKA ARTISTIKOAN ETA ARTEAREN TEORIAN II' / 'PERSPECTIVAS FEMINISTAS EN LAS PRODUCCIONES ARTÍSTICAS Y LAS TEORÍAS DEL ARTE' | 12 |
|--|----|

### ZINEA CINE

|   |    |
|---|----|
| DONOSTIAKO ZINEMALDIA ALHÓNDIGABILBAON      |    |
| EL ZINEMALDI DE DONOSTIA EN ALHÓNDIGABILBAO | 15 |

### NAFA 2013

|  |    |
|--|----|
| ZINEMA ETNOGRAFIKOAREN JAIALDIA / FESTIVAL DE CINE ETNOGRÁFICO | 18 |
|--|----|

|                                |    |
|--------------------------------|----|
| ZINEMATEKA ANDREI KONCHALOVSKY | 20 |
|--------------------------------|----|

### ARTE ETA EZAGUTZA ARTE Y CONOCIMIENTO

|  |    |
|--|----|
| BULEGOA Z/B. 'KONTRATUA' IRAKURKETA-TALDEAREN GRUPO DE LECTURA 'EL CONTRATO' | 23 |
|--|----|

### ARTE BIZIAK ARTES EN VIVO

|  |    |
|--|----|
| DANTZALDIA: 'PRÊT À BAISER' Olivier Dubois. Paris / DANTZAN BILAKA | 24 |
|--|----|

|  |    |
|--|----|
| BABY DEE - URPEKO MUSIKA / MÚSICA BAJO EL AGUA | 25 |
|--|----|

## MEDIATEKA BBK

|                 |    |
|-----------------|----|
| MUSIKA ZORTZIKO | 27 |
|-----------------|----|

|                           |    |
|---------------------------|----|
| ZIENTZATEKA / AUREZ AURRE | 28 |
|---------------------------|----|

|                                 |    |
|---------------------------------|----|
| IRAKURKETA ERRAZA LECTURA FÁCIL | 29 |
|---------------------------------|----|

|  |    |
|--|----|
| PROGRAMAZIO EGONKORRA / PROGRAMACIÓN ESTABLE | 30 |
|--|----|

|  |    |
|--|----|
| ASTEBURUAK MEDIATEKA BBK / LOS FINES DE SEMANA EN LA MEDIATEKA BBK | 31 |
|--|----|

## LURREKO ETA URETAKO JARDUERAK ACTIVIDADES EN TIERRA Y AGUA

|                                     |    |
|-------------------------------------|----|
| URTEKO TAILERRAK / TALLERES ANUALES | 33 |
|-------------------------------------|----|

|  |    |
|--|----|
| URETAKO ETA LEHORREKO PREMIUM TARIFA / TARIFA PREMIUM PARA TIERRA Y AGUA | 35 |
|--|----|

## KANPOKO PROGRAMAZIOA PROGRAMACIÓN EXTERNA

|                                      |    |
|--------------------------------------|----|
| MERKATARITZA GUNEA ESPACIO COMERCIAL | 38 |
|--------------------------------------|----|

|   |    |
|---|----|
| INFORMAZIO OROKORRA INFORMACIÓN GENERAL | 40 |
|---|----|

|                       |    |
|-----------------------|----|
| LASTER / PROXIMAMENTE | 42 |
|-----------------------|----|

|  |    |
|--|----|
| URRIKO JARDUEREN EGUTEGIA / CALENDARIO DE ACTIVIDADES DE OCTUBRE | 44 |
|--|----|

|                |    |
|----------------|----|
| PLANOA / PLANO | 46 |
|----------------|----|



# XABIER ARAKISTAIN

'GUERRILLA GIRLS. 1985-2013'

erakusketaren komisarioa

Comisario de la exposición

'GUERRILLA GIRLS. 1985-2013'

## ARTEA EGINEZ ETA ARTEARI BEGIRATUZ, FEMINISMOTIK

Artearen eta aktibismoaren arteko bidegurutzean dagoen Guerrilla Girls artista-kolektiboa arte feministaren mugimenduren azken etapako ahots nabarmena da. Mugimendu hau beti arduratu izan da arte-sortzailearen sexuaren eta arrazaren arabera handitzat edo txikitzat sailkatzen den artearen mistifikazio prozesuak betikitzen dituzten fikzioak desegiteaz.

Prozesu eta fikzio horiek neoliberalismoaren goraldiaren ondorioz bizi duten indar berrituaren aurka aritzeko asmoz sortu zen Guerrilla Girls, laurogeiko hamarkadaren erdialdean. Kolektiboko kideen anonimatuari eutsita, bere jardunaren dimentsio politikoan zentratu izan da, eta, aldi berean, emakumeek gizarte garaikideetan sufritzen duten ahaztura sistematikoa salatu izan du.

AlhóndigaBilbao erakusketan ikusgai dauden Guerrilla Girls-en kartel, argitalpen eta jarduerak aurreko ibilbide feministari egindako aitopenak dira, baina, batez ere, egiteke dagoen agenda feministaren gaineko hausnarketara garamatzake. Esate baterako, 1988ko 'Until Feminism Has Achieved Its Goals, There Is No Post-Feminism' kartela asmo-adierazpen irmoa da.

## HACIENDO Y MIRANDO EL ARTE DESDE EL FEMINISMO

En la intersección entre el arte y el activismo, el colectivo de artistas Guerrilla Girls son una voz destacada de la última etapa del movimiento arte feminista. Un movimiento que se ha ocupado de desbaratar ficciones que perpetúan los procesos de mistificación de un arte que se clasifica como mayor o menor dependiendo del sexo y de la raza de quien lo produzca.

Contra el renovado ímpetu que experimentan esos procesos y ficciones con el auge del neoliberalismo, Guerrilla Girls inicia su andadura a mediados de los años ochenta manteniendo el anonimato de los miembros del colectivo para centrarse en la dimensión política de su práctica, a la par que denuncia el olvido sistemático que sufren las figuras femeninas en las sociedades contemporáneas.

Los carteles, publicaciones y actividades de Guerrilla Girls que se muestran en la exposición en AlhóndigaBilbao son un reconocimiento a la andadura feminista precedente, pero, sobre todo invitan a la reflexión sobre la agenda feminista pendiente. El póster de 1988 'Until Feminism Has Achieved Its Goals, There Is No Post-Feminism', es una firme declaración de intenciones en este sentido.



Dearest Art Collector,  
It has come to our  
attention that your  
collection, like most,  
does not contain  
enough art by women.  
We know that you  
feel terrible about this  
and will rectify the  
situation immediately.

All our love,  
Guerrilla Girls

ZINEMATEKA / CINE

ARTE BIZIAK / ARTES EN VIVO

ARTE ETA EZAGUTZA / ARTE Y CONOCIMIENTO

PROGRAMAK ETA JAIALDIAK / PROGRAMAS Y FESTIVALES

# GUERRILLA GIRLS

1985 – 2013

## Erakusketa

2013ko urriaren 3tik 2014ko urtarrilaren 6ra

Erakusketa Aretoa. -2 solairua

Sarrera dohainik

AlhóndigaBilbaok Guerrilla Girls-en lanaren lehen atzera begirako handia aurkezten du; izan ere, Estatu Batuetako kolektibo feminista hori, bere poster eta esku-hartzeei esker, 'arte-munduaren kontzientzia' bihurtu da.

Erakusketa Aretoko hormetan, 1985. urtean sortu zenetik emakume talde honek egindako kartel eta proiektu ia guztiak ikusi ahal izango dira. Guerrilla Girls-en lana, artean nahiz gainerako jardueren esparruan, emakumeen menpeko egoerari egindako salaketaren nazioarteko erreferentzia da.

Erakusketa urriaren 3an (osteguna) inauguratuko da, arratsaldeko zortzietan. Ondoren, kontzertua egongo da Furia Soprano, Feral is Kinky eta DJ Lourdes Madowen eskutik, Kulturen Atarian.

## Exposición

Del 3 de octubre de 2013 al 6 de enero de 2014

Sala de Exposiciones. Planta -2

Entrada libre

AlhóndigaBilbao presenta la primera gran retrospectiva del trabajo de las Guerrilla Girls, el colectivo artístico feminista estadounidense que con sus pósters e intervenciones se han convertido en 'la conciencia del mundo del arte'.

En las paredes de la Sala de Exposiciones se podrán ver casi todos los carteles y proyectos que ha realizado este grupo de mujeres, desde su fundación en 1985. Su trabajo es una referencia internacional de la denuncia de la posición subordinada de las mujeres tanto en el arte como en el resto de los campos de actividad.

La exposición se inaugura el jueves, 3 de octubre a las ocho de la tarde. Después, tendrá lugar un concierto en el Atrio de las Culturas a cargo de Furia Soprano, Feral is Kinky y DJ Lourdes Madow.

## 'FEMINISMOA DA ETORKIZUNA'

55 EMAKUMEK BAINO GEHIAGOK HARTU DUTE PARTE GUERRILLA GIRLS TALDEAN ORAIN DELA 28 URTE SORTU ZENETIK. EMAKUME HORIEK, BEREN ARTE POLITIKO GARAİKIDEAREKIN ETA TXIMINO-MOZORROEKIN, ASTINALDIA EMAN ZIETEN NEW YORKEKO KONTZIENTZIEI 80KO URTEETAN; IZAN ERE, GAIZKI DAGOENA IDENTIFIKATZEN DUTEN FEMINISTA MENDEKATZAILE BIHURTU ZIREN, GERTATZEN DEN TOKIAN GERTATZEN DELA.

### **AlhóndigaBilbao: Zer eragin zuen lehenengo ekintza?**

Guerrilla Girls: 80ko hamarkadan emakume artisten kontra zegoen erreakzio bortitzaren lekuko izan ginen. Aurreko hamarkadarekin alderatuz gero, gauzek txarrera egin zuten, eta inflexio-puntua 1985. urtea izan zen, New Yorkeko Museum of Modern Art-ek 'An International Survey of Painting and Sculpture' ('Pinturari eta eskulturari buruzko nazioarteko azterketa') erakusketa inauguratu zuenean. Erakusketa hura mundu osoko arte garaikidearen azken orduko azterketa izan zen, eta lanak erakusten zituzten 169 artistetatik 13 baino ez ziren emakumeak. Are gutxiago ziren artista beltzak, eta ia artista guztiak ziren AEBetakoak, Kanadakoak eta Europakoak.

Museoaren aurrean pikete-talde bat antolatu zen, eta bat egin genuen haiekin. Hala ere, aurretik pasatzen zen jendearengan ez genuen inolako eraginik. Konturatu ginen trebezia handiagoko formaren bat behar genuela, garaikideagoa; museoak hutsik gabeko meritokraziak direlako ustea bazterrarazi behar genuen: badakigu artearen munduan diskriminazioa egon dena, nahita zein nahigabe ezarria.

### **AB: Zer egin zenuten?**

GG: Arte politikoa eraikitzeko ideia berri bat bururatu zitzaigun; ez zen bakarrik zerbait seinalatu eta txarto dagoela esatea, gaia irauli eta elkarrizketa eragin gura genituen.

## 'EL FEMINISMO ES EL FUTURO'

MÁS DE 55 MUJERES ARTISTAS HAN FORMADO PARTE DE GUERRILLA GIRLS EN SUS 28 AÑOS DE HISTORIA. MUJERES QUE CON SU ARTE POLÍTICO CONTEMPORÁNEO Y SUS CARETAS DE SIMIO AGITARON LAS CONCIENCIAS DEL NUEVA YORK DE LOS 80, CONVIRTIÉNDOSE EN LAS VENGADORAS FEMINISTAS QUE IDENTIFICAN LO QUE ESTÁ MAL, ALLÁ DONDE SE PRODUZCA.

### **AlhóndigaBilbao: ¿Qué es lo que desencadenó la primera acción?**

Guerrilla Girls: En la década de los 80 fuimos testigos de una reacción violenta contra las mujeres artistas. Las cosas fueron empeorando con respecto a la década anterior, y el punto de inflexión fue el año 1985, momento en el que el Museum of Modern Art de Nueva York inauguró una exposición, 'An International Survey of Painting and Sculpture' ('Un estudio internacional sobre pintura y escultura'). En dicha exposición, que se prodigó como un estudio de última hora del arte contemporáneo más significativo del mundo, sólo 13 de los 169 artistas expuestos eran mujeres. Menos incluso eran artistas de color y la práctica totalidad de los artistas eran de los EE.UU., Canadá y Europa.

Nos unimos a un piquete que se encontraba delante del museo, y vimos que no causaba ningún efecto entre los viandantes. Nos dimos cuenta de que hacía falta una forma con una mayor destreza, más contemporánea, que sirviera para desterrar la idea que se tiene normalmente de que los museos son infalibles meritocracias: Sabemos que ha existido una discriminación consciente e inconsciente en el mundo del arte.

### **AB: ¿Qué hicieron?**

GG: Se nos ocurrió una nueva idea de cómo construir el arte político, no solo señalar a algo y decir que estaba mal, sino retorcer el tema y suscitar el diálogo.





Batzar baterako deia egin genien lagun eta kide batzuei, eta poster bat egiteko lehen ideia aurkeztu genien. Guerrilla Girls izena hartu genuen (Neska gerrillariak). Txapela pasatu genuen, inprimatzeko, eta orduan kalea geuretzat aldarrikatu genuen, kalea zelako geure oihala. Lehenengo posterak New Yorkeko kaleetara atera zirenean, 1985eko maiatzean, infernuko haserrikerik handienak zabaldu ziren. Orduantxe jaio zen Guerrilla Girls, jendaurrean gorila-maskarak zeramatzaten emakume artistak. Goitizen gisa, hilda zeuden emakume artisten izenak hartu genituen. 55 emakumek baino gehiagok hartu dute parte Guerrilla Girls taldean urte hauetan guztietan, batzuek hilabete batzuek, beste batzuek hainbat urtez.

**AB: Zergatik aukeratu zenuten irudi hori?**

GG: Garaiak aldatu egin direla eta, ondorioz, protesta-bideak ere aldatu egin behar direla adierazi nahi genuen.

**AB: Zer erreakzio izan zuten gizarteak, artearen munduak eta beste talde feminista batzuek?**

GG: Asko eta asko mindu egin ziren kontu honenkin, batik bat gure posterretan errudun edo arazoaren sortzaile gisa agertzen zirenak. Emakume artistak eta gizonezko zein emakumezko artista beltzak pozarren zeuden norbaitek sistema ustel eta aurreiritziz bete salatzeko ausardia izan zuela ikustean. Guztiak hasi ziren arazoari buruz hitz egiten. Prentsan ia egunero hasi ziren guri buruz hitz egiten, barkamen askorik eskatu gabe bazen ere, eta pixkanaka-pixkanaka sistema aldatzen hasi zen. Museoetan eta galerietan emakume artisten eta artista beltzen lanak agertzen hasi ziren erakusketetan eta azterketetan. Ezagutza egokiak eta zuzenak genituela konturatzen hasi ziren: ezin daiteke kultura baten historia kontatzen hasi, historia horren kultura osatzen duten ahots guztiak sartzen ez badira.

Hasierako poster haiek beste ehunka poster berriren eredu izan dira, eta hainbat ekintza

Invitamos entonces a unos amigos y colegas a una reunión y les presentamos una primera idea para un póster. Nos bautizamos con el nombre de Guerrilla Girls (Las guerrilleras). Pasamos el sombrero para poder imprimir, y entonces reclamamos la calle para que fuera nuestro lienzo. Cuando salieron los primeros pósteres a las calles de Nueva York, allá por mayo de 1985, se desataron todas las furias del infierno. Ahí es donde nacieron las Guerrilla Girls, un grupo anónimo de mujeres artistas que llevaban máscaras de gorila en público, adoptando los nombres de mujeres artistas ya fallecidas como pseudónimos. Más de 55 mujeres han formado parte de las Guerrilla Girls durante todos estos años, algunas durante unos meses y otras durante varias décadas.

**AB: ¿Por qué elegisteis esa imagen?**

GG: Queríamos transmitir un mensaje de que los tiempos habían cambiado y que los métodos de protesta también debían cambiar.

**AB: ¿Cuál fue la reacción de la sociedad, del mundo del arte y de otros colectivos feministas?**

GG: A muchas personas les molestó intensamente el tema, especialmente aquellas que se mencionaban en nuestros pósteres como parte culpable o causante del problema. Las mujeres artistas y los y las artistas de color estaban encantados de que por fin alguien se lanzara a exponer un sistema corrupto y lleno de prejuicios. Todo el mundo empezó a hablar de los problemas. Se empezó a hablar un montón sobre nosotras en la prensa, aunque sin pedir demasiadas disculpas, y poco a poco, el sistema comenzó a cambiar. Los museos y galerías comenzaban a incluir mujeres artistas y artistas de color en sus exposiciones y estudios. Comenzaron a darse cuenta de que teníamos los conocimientos adecuados y correctos: no se puede empezar a contar la historia de una cultura sin incluir todas las voces que componen la cultura de dicha historia.

egin ditugu kaleetan, kartelak, pegatinak, liburuak... Eta ez soilik arteari buruz; baita zinema munduko, politikako eta pop kulturako emakumei eta pertsona beltzei buruz ere.

**AB: 'Ekintzak, umorea eta larru sintetikoak' desdramatzen dituzue. Eragingarriagoa al da desdramatizatzea?**

GG: Gure moztuak gure arrakastaren parte dira, pertsonak gurekin bat egiteko duten arrazoiak dira. Baina berez gure obra urratzaileari esker egon izan gara beti eskaripean. Mozorrodun feminista mendekatzaileak gara, eta txarto dagoena identifikatzen dugu.

**AB: Noren errua da arte-zirkuituetan emakumerik ez egotea edo emakume gutxi egotea?**

GG: Guztiok gara erantzuleak: ikusleak, artistak, bildumazaleak, kritikariak, historialariak, museoak, galeriak, komunikabideak, ikastetxeak, unibertsitateak, gobernuak, etab. Denon ardura da sistema aldatzea. Eta horretan gabil-tzan artean, altxa eta borroka gaitezen giza eskubideen alde bazter guztietan.

**AB: Zer datorkizue burura AlhóndigaBilbao-ko atzera begirako hau ikustean?**

GG: Oso interesgarria eta hunkigarria izan da atzera begiratzea, lanean daramatzagun 28 urteak gogoratzea... Normalean aurrera begiratzen dugu beti, hurrengo proiektuari begira egoten gara. Gauzak zertan aldatu diren ikusarazi eta pentsarazi digu, eta gauzak ez direla behar beste aldatu ikusi dugu. Izugarri eskertu nahi diegu Xabier Arakistaini eta Lourdes Fernandezi, hau aurrera atera ahal izateko egin duten guztiagatik.

**AB: Kontatuko al diguzue zuen hurrengo ekintzari buruzko zerbait?**

GG: Guk sekretu asko ditugu, eta horietako bat horixe bera da.

Estos primeros pósteres han marcado la pauta inicial para un centenar de otros nuevos, además de acciones por las calles, carteleras, pegatinas y libros. Y no sólo sobre arte, sino sobre mujeres y personas de color en los mundos del cine, la política y el pop.

**AB: Proponéis 'hechos, humor y pieles sintéticas' ¿Resulta más efectivo desdramatizar?**

GG: Nuestras máscaras forman parte de nuestro éxito, uno de los motivos por los que las personas se sienten vinculadas a nosotras. Pero es más nuestra obra transgresora la que nos ha mantenido siempre bajo demanda. Nos hemos convertido en vengadoras feministas con máscaras que identifican lo que está mal.

**AB: ¿Quién es el responsable de la ausencia o escasez de mujeres en los circuitos artísticos?**

GG: Todos y todas somos responsables: espectadores, artistas, coleccionistas, críticos, historiadores, museos, galerías, los medios de comunicación, escuelas, universidades, gobiernos, etc. Todos y todas tenemos la responsabilidad de cambiar el sistema. Y mientras nos ponemos a ello, levantémonos y luchemos por los derechos humanos en todos los sitios.

**AB: ¿Qué pensáis al ver esta retrospectiva en AlhóndigaBilbao?**

GG: Ha sido tan interesante y conmovedor echar un vistazo atrás, hacia los 28 años que llevamos trabajando... Normalmente solemos echar la mirada hacia adelante, hacia el siguiente proyecto. Nos ha hecho ver y pensar en lo que han cambiado las cosas, y en que las cosas no han cambiado lo suficiente. Estamos tan agradecidos a Xabier Arakistain y a Lourdes Fernández por hacer que esto se haga realidad.

**AB: ¿Podéis contarnos algo sobre vuestra próxima acción?**

GG: Nosotras tenemos muchos secretos y ése es uno de ellos.